

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK 2025-2026 IKASTURTERAKO

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionelean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

2025-2026 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Eskabidea (l. Eranskina) behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.
- b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagozkion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.
- c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea. Langabetuentzako dirulaguntza eskatzaileek %90eko asistentzia egiaztatu beharko dute. Horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Bi dirulaguntza mota egongo dira, eta bata bestea baztertzen du:

7.1. Dirulaguntza orokorrak:

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

- A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetakoa ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %100.
- C2 mailakoa ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.

Dirulaguntzaren portzentajea kalkulatzeko hasiera maila hartuko da kontuan, eta ez lortutako maila.

7.2. Espezifikoak: baldintza ekonomikoen arabera

Matrikula gastuaren %100 diruz lagunduko da honako egoera hauetakoren batean zeudela egiaztatzen duten pertsonen kasuan:

- Ikastaroa hasi zuten egunean gizarte-larrialdiko laguntza (GLL) jasotzen ari zirenak.
- Ikastaroa hasi zuten egunean diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen ari zirenak.
- Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia daudenak.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2026ko urriaren 31n amaituko da.

Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <https://www.beasain.eus> edo Udalaren erregistroan, l.eranskineko ereduaren arabera.